



1. ALDIKO PROBLEMAK

1.- ASMAKIZUNA

- a) Ikaskide bati 2 zifrako zenbaki bat pentsatzea eskatzen diozu eta gero ondoko pausuak jarrai ditzan:
- Hartu hamarreko zifra eta biderkatu 2tik
 - Gehitu emaitza horri 13
 - Biderkatu aurreko emaitza 5-etik eta
 - Ateratako emaitzari, gehitu hasierako zenbakiaren bateko zifra.

“Orain esadazu azken emaitza eta hasieran pentsatu zenuen zenbakia asmatuko dizut”.

Azaldu zenbaki hori asmatzeko erabilitako prozedura.

- b) Sor ezazu 3 zifrako zenbaki bat asmatzeko prozeduraren bat.

SOLUZIOA:

a) Pentsatutako zenbakia ab bada, azkeneko emaitza $10a+65+b$ izango da, beraz hasierako zenbakia lortzeko nahikoa izango da emaitza horri 65 kentzea.


2.- PATIOA BALDOSATZEN

Kepak eta Anek 16 baldosa handiko patio karratua margotu nahi dute; batzuk beltzez eta besteak zuriz. Kepak 4 lerroak ondorengo diseinuaren arabera margotu nahi ditu:
(z: zuria, b: beltza)

(z,z,z,b), (z,z,b,z), (b,z,z,b), (b,b,z,b)

Anek, ordea, 4 zutabeak ondorengo diseinuaren arabera margotu nahi ditu:

(b,b,b,z), (z,z,b,z), (z,z,z,b), (b,z,b,z).




Aurkituko al duzu diseinuren bat biak pozik izateko?
Azaldu nola egin duzun.

SOLUZIOA:


Hasteko badaude modu desberdinak:

Adibidez:

Keparen diseinutik abiatuta, 1. zutabeak 2 baldosa zuri eta 2 beltz izan beharko ditu eta baldintza hori betetzen duen aukera bakarra Anek emandako azken zutabea da. Era berean, 4. zutabeak 1 zuri



eta 3 beltz izango ditu. Eta hori, era bakarrean, Anek emandako 1. aukerari dagokio. Beraz, lehenengo eta laugarren zutabeak finkatzeko aukera dugu:



2. eta 3. zutabeak ezabapen prozesu simple baten bidez lor daitezke.

3.- PAPILGRADISA (araknido txiki baten izena da latinez)

Aritmetika klasean, oilo batek, sei txakurrek eta zazpi papilgradisek guztira zenbat hanka dauzkaten galdetzen zaie ikasleei . Koldok 44 dio, Ionek 72, Anek 65 eta Edurnek 82.

- a) Nork du arrazoia? Zergatik?
- b) Edurnek 77 papilgradis bildu ditu eta 4ko eta 5eko kutxetan sartu nahi ditu. Zenbat kutxa erabili beharko du? Eman soluzio guztiak.


SOLUZIOA:

- a) Guztira $2+6 \cdot 4 + 7 \cdot x$ anka \implies Bakarrik Edurnek du arrazoia eta papilgradis bakoitzak 8 hanka dauzka.
- b) $4x+5y = 77 \implies (18,1), (13,5), (8,9), (3,13)$


4ko kutxak	18	13	8	3
5eko kutxak	1	5	9	13

4.- ITURRIA

Zirkulu formako iturri baten inguruan lauki bat egin da, ondoko irudian bezala. Zein da DC aldearen luzera?



SOLUZIOA:



Hau ikusita:

$$a + b = 4$$

$$b + c = 7$$

$$a + d = 3$$

$$\text{Beraz: } a + b + c + d = 10$$

$$\text{Eta } c + d = 10 - a - b = 10 - 4 = 6$$

Edo beste era batean, konturatuko bagina kontrako aldean batura berdina dela: $3+7 = 4+ DC$ eta $DC = 6$.